



Basaburuko Udala
CIF P 3104900 J
31866-Jauntsarats (Nafarroa)

2020KO OTSAILAREN 27AN BASABURUKO UDALAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Jauntsaratsen (Basaburuan), udaletxeko bilkura aretoan, 2020ko otsailaren 27an arratsaldeko 19:00etan, ondoren izendatzen diren jaun andereak bildu dira, ohiko bilkuran, legearen arabera bideratutako deialdia eginda, Esther Lakasta Perez Ilzarbe alkatearen lehendakaritzapean, eta Lucia Beloqui Iriarte, udal idazkariaren laguntzarekin.

BERTARATUAK: Santos Etxegia , M^a Mar Ansorena, Julen Beunza, Xabier Azpiroz, Ricardo Arangoa eta Olatz Dorai.

Bertaratu da baita ere Asensio Indacoechea Berueteko kontzejuko alkatea.

19:00etan lehendakariak bilkura hasitzat eman du eta gai zerrendan dauden gaiak lantzeari ekin zaio.

GAI ZERRENDA

1.- Aurreko batzarreko akta onartzea.

2020ko urtarrileko ohiko batzarreko akta, deialdiarekin batera bidali da eta bildutakoek aho batez onartzen dute.

2.- Alkate ebazpenak.

Alkateak irakurtzen ditu orain arte emandako alkate ebazpenak:

- 2020/3 alkate ebazpena urtarrilaren 31ekoa onartuz Jose Joaquin Barberena Echeverriak egindako zaharberritzeko dirulaguntza eskaera Berueteko 11. Poligonoko 455. Lursailean dagoen etxebizitzaren teilatua eraberritzeko, dirulaguntza 979,65 eurokoa izanik.

-2020/4 alkate ebazpena urtarrilaren 31ekoa onartuz M^a Lidia Manjarrez Paradak aurkeztutako obra bukaerako EIOZren likidazioa eta zaharberritzeko dirulaguntza eskaera, Itsasoko 4. Poligonoko 6. Lursailean dagoen etxebizitzaren teilatua berritzeko.

- 2020/5 alkate ebazpena urtarrilaren 31ekoa onartuz La Caixa entitateko 934003051032482 zenbakidun 4.000 euroko abalaren itzulketa, Javier Flores Galarzak egindako eskaera 2003. Urtean aholkularitza urbanistikoaren zerbitzuaren esleipenerako.
- 2020/6 alkate ebazpena urtarrilaren 31ekoa onartuz Pascual Altzari dendak aurkeztutako aurrekontua 00000720 zenbakidun aurrekontua, 240 euroko BEZ barne Corbero CCH559MX laberako.
- 2020/7 alkate ebazpena otsailaren 4koa onartuz Olaia Gascue Jaunarenak egindako jardunaldia luzatzeko eskaera Basaburuko 0.-3 haur eskolan matrikula egin duen bere semea, Aiert Oronoz Gascue, jardunaldi erditik jardunaldi osora pasatuz, 2020ko otsailaren 1etik aurrera.
- 2020/8 alkate ebazpena otsailaren 6koa onartuz Pascual Blanco altzari dendak aurkeztutako 20000011 zenbakidun aurrekontua, 240 eurokoa BEZ barne Vitrocerámica Electrolux EHF6231FOK modelo jartzeko.

Bildutakoek ontzat ematen dituzte egindako ebazpenak.

3.- Uraren eskuordetzea onartu Arraratsko kontzejua.

Alkateak irakurtzen du Arraratsko kontzejua egindako eskaera, kontzejuko batzarrean onartutakoa. Bertan esaten da udalari ordaintzen zaizkion uraren gastuak altuak direla eta beste sistema bat jartzeko obra egitea aukera hoberena dela, eta hortaz Basaburuko udalari uraren eskumena kontzejua izatea eskatzen diola.

Berez, 1985/7 Toki Erregimenaren Oinarrien Legearen 25. eta 26. artikuluen arabera uraren hornidura udalerrien eskumena da. 6/1990 Toki Administrazioiko Foru Legearen 30. Artikuluaren arabera, udalerriek kontzejuen esku utzi ditzakete bere eskumen propioak. Ondorioz, bildutakoek aho batez ondoren zehazten dena onartzen dute:

Arraratsko kontzejua egindako eskaera onartu eta ur horniduraren eskuordetzea egitea udaletik Arraratsko kontzejura 6/1990 Toki Administrazioiko Foru Legearen 30. Artikuluaren arabera.

-Akordio hau Arraratsko kontzejuari jakinarazi.

4.- 2019ko plantilla organikoa. Hasierako onespena.

Alkateak azaltzen du aurreko urteko aurrekontuaren onespenearekin batera ez zela plantilla organikoa onartu eta zintzilik zegoen onartzeko.

Irakurtzen da ondoren transkribatzen den plantilla:

2019KO PLANTILLA ORGANIKOA

ZBKIA	LANPOSTUAREN IZENA	MAILA TALDEA	SARBIDEA	Osagarriak	Hizk. profila	EGOERA
01	Administrari-ofiziala	C	Barne promozioa	%12 M. %3,54 L.O.	C1/EGA edo	Jarduncan

					baliokidea	
02	Zerbitzu anitzetako langilea	D	Oposizio lehiaketa	%12 M. %42 L.O.	C1/EGA ahoz, B1 idatziz	Hutsik
03	Garbiketa zerbitzua	E	Oposizio lehiaketa	%46,38 L.O.	B1 idatzia, B2 ahozkoa	Hutsik
04	Garbiketa zerbitzua	E	Oposizio lehiaketa	%25,76 L.O.	B1 idatzia, B2 ahozkoa	Hutsik
05	Haur Eskolako zuzendaria	B	Oposizio lehiaketa		C1/EGA edo baliokidea	Hutsik
06	Haur Eskolako hezitzailea	C	Oposizio lehiaketa		C1/EGA edo baliokidea	Hutsik
07	Garbiketa zerbitzua	E	Oposizio lehiaketa		B1 idatzia, B2 ahozkoa	Hutsik

IZENEN ZERRENDA

FUNTZIONARIOAK

IZEN-ABIZENAK	LANPOSTUA	MAILA	ZERB. ONART.	GRADUA	OSAGARRIAK	EGOERA	LANALDIA
Elena Gaskue Jaunarena	Administraria	C	2000-03-28	3	%12, %3,54	Jardunean	%75

ALDI BATERAKO ADMINISTRAZIO KONTRATUDUNAK

IZEN-ABIZENAK	LANPOSTUA	MAILA	ZERB. ONART.	OSAGARRIAK	EGOERA	LANALDIA
Patxi Biurrarena Barrenetxea	Zerbitzu anitzetako langilea	D	2011-11-01	%12, %42	Jardunean	%100

ALDI BATERAKO LAN KONTRATUDUNAK

IZEN-ABIZENAK	LANPOSTUA	MAILA	ZERB. ONART.	OSAGARRIAK	EGOERA	LANALDIA
Begoña Arano Galarza	Administraria	C	2018/10/17	%12	Jardunean	%55
M ^a Cruz Ayensa Azcona	Garbiketa zerbitzua	E	2006-01-01	%46,37	Jardunean	%60,50
M ^a Begoña Azpiroz Muguruza	Garbiketa zerbitzua	E	2006-01-01	%25,74	Jardunean	%63,51
Paula Elizondo Barberena	Haur eskolako hezitzailea	C	2019/01/08		Jardunean	%100
Amaia Ariztegui Barberena	Haur eskolako zuzendaria	B	2017/09/22		Jardunean	%100
M ^a Paz Echarri Echeagua	Haur eskolako garbitzailea eta jantokiko laguntzailea	E	2017/11/02		Jardunean	%55

Bildutakoek ondoren zehazten den erabakia hartzen dute 1990/6 Toki Administrazioiko Foru Legearen 235. Artikuluaren arabera:

- **Hasiera batez onartu Basaburuko Udaleko 2019rako langileen plantilla organikoa eta akordio hau aipatutako artikularen arabera Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agindu 15 egun baliodunen epean.**

5.- Dorrea Gaztandegiarekin sinatutako hitzarmena. Behin betiko onespena.

Alkateak azaltzen du hitzarmena, 2019/153 alkate ebazpen bidez onartu zela hasiera batez, hitzarmen honen bidez zehazten dira 44. Lursaileko garapenerako baldintzak jarduera ekonomikorako eremua sortzen denean. Hasierako akordio hau Azaroaren 26ko NAO n argitaratu zen 2019ko abenduaren 27a arte. Hitzarmena Dorrea Gaztandegiarekin jada sinatu zen.

2017/1 Foru Legearen 25. artikularen arabera jende aurreko epea pasatakoan behin betiko onespena eman ahal zaio hitzarmenari, hortaz bildutakoek hau erabaki dute:

- **Aho batez ematea Dorrea Gaztandegiarekin sinatutako hitzarmenari behin betiko onespena eta erabaki hau Dorrea Gaztandegiari jakinaraztea.**

Gai honekin lotuta aztertzeke beste gai bat badago, Beramendiko iharduera ekonomikoen gunea sortzeko udal planaren aldaketaren onespena.

Gai ordenean sartuta ez dagoen gaia aztertzea onartzen dute aho batez bildutakoek.

Beramendin iharduera ekonomikoen gunea sortzeko udal planaren aldaketa.

Alkateak azaltzen du iharduera sortzeko udal planaren aldaketa hasiera batez onartu zela, bertan Dorrea Gaztandegiaren eremua sartuz, beraiekin hitzartu bezala eta hala eskatu zutenez eremu hori industrial gunetik kanpo geratu da eta hortaz udal planaren azalera aldatu, gainera 47. Lursailaren zati ere kontutan hartzen da eremuan. Horrek ere udal planaren aldaketa arautzen duen memoria eta planuak aldatzen ditu eta hortaz onartu behar da hasierako onespenean onartu zenaren aldaketa hau eta jende aurrean egonen da hilabeteko epean alegazioak jartzeko aukera izan dezaten interesdunek. Hau ikusita bildutakoek aho batez, ondoren zehazten den erabakia hartzen dute:

- **Onartzea Beramendin iharduera ekonomikoen gunea sortzeko udal planaren aldaketaren, aldaketa, udal arkitektoak 2020ko otsailean sinatutako memoria eta planuekin.**
- **Jende aurreko hilabeteko epean argitaratzea akordio hau alegazioak aurkezteko epea irekiaz.**
- **Dorrea Gaztandegia, Udabe Beramendiko kontzejua eta Beramendiko 2. Poligonoko 47. Lursaileko jabeari jakinarazi.**

6.- Udaleko garbiketa lanpostua betetzeko plegua.

Alkateak azaltzen du 2020ko urtarrilaren 1ean jubilatu zela jada garbitzaile bat eta hortaz lanpostu hori bete behar da, momentuz ordezeko bat dago lan hori egiten.

Lanpostua osatzeko prozesua hasteko balorazio plegua eta txosten juridikoa prestatu dira. Balorazio mahaia osatu behar da eta prozesuari hasiera eman.

Hortaz bildutakoek prozesuari hasiera ematea adosten dute balorazio mahaiko kideak izendatu, hauek izanen direlarik Esther Lacasta, Santos Etxegia eta M^a Mar Ansorena. Aipatutakoei bidaliko zaie balorazio plegua, bildu eta aztertzeko.

7.- Aholkularitza juridikoaren zerbitzu kontratua esleitzeko plegua.

2016ko datarekin sinatu zela kontratua adierazten du alkateak eta 4 muga gaindituta duenez, zerbitzu kontratu berria esleitu behar da. Kontratazioa 2018/2 kontratuen foru legearen 73. artikulua araberako prozedura irekiaz egiten dela adostu da, araubide juridikoa kontutan hartuta. Esleipenaren prezioa 4.500 euro (BEZ kanpo) urtero izatea finkatzeko dute.

Baldintza administratibo eta teknikoaren plegu zirraborra prestatua dago, baita prozeduraren txosten juridikoa.

Bildutakoek aho batez onartzen dute prozedurari hasiera ematea eta kontratazio mahaikideak Esther Lacasta, Julen Beunza eta Ricardo Arangoa izendatzea.

Bidaliko zaie pleguen zirraborra aztertzeko.

8.-2020-2030 ehiza barrutia berritzeko onespina.

Alkateak azaltzen du ehiza barrutia berritzea tokatzen dela 2020 urtean, beste hamar urterako eginen da, udalaren eremua Aizarotzi dagokiona da eta beste guztia kontzejuen eremuak osatzen dut. Martxoaren 2an bilera izanen da Ehiza Atalak deitua, tramitazioaren inguruan eztabaidatzeko. Prozedurari hasiera ematea adostu behar da eta ondoren kontzeju guztiak ados egon ehiza barrutia berritzearekin, bildutakoek hau onartzen dute:

- 2020-2030 epealdirako Basaburuko ehiza barrutia berritzeko prozedurari hasiera ematea, hots kontzejuei jakinarazi batzarretan akordio hau hartu behar dutela.

9.- 1006 BLX eta NA 9775AH autoen erretreta.

Alkateak irakurtzen du 1006 BLX matrikuladun autoaren erretreta egiteko eskaera, Itsasoko bizilagun batek egina eta bestea NA 9775 AH autoaren erretreta Foru Zaingoak egindako ikuskapen baten ondorioz. Autoen erretreta egiteak suposatzen du adieraztea lehenik ibilgailua Prozedura martxan jartzeko jabeei jakinaraziko zaie prozedura ireki dela eta hondakin izaera eman baino lehen beraiek jaso ahal dutela, bestela udalak jasoko luke.

- Onartzea prozedurari hasiera ematea eta jakinaraztea autoen jabeei bi hilabeteko epea daukatela ibilgailuak jasotzeko, epe hori pasata hiri hondakin izaera onartuko zaio eta udalak hala tramitatuko du.

10.-Mozioak.

Martxoaren 8aren inguruan adierazpen bat prestatuko da eta ebazpen bidez onartu eta bando bidez kontzejuetan zabalduko da. Hurrengo batzarrean berretsiko da alkate ebazpen hori.

11.- Batzordeen informazioa.

- Kontzejuen Batzordea. Santos Etxegiak ematen du informazioa.

Hirigintza plana aurkezteko bilerak antolatu dira kontzejuetan martxoaren hasierako astean.

NA 121 errepidearen inguruan udalak sinatu du eskaera bat kamioak errepide horretatik baztertzeko, sortzen diren arriskuengatik, otsailaren 28an errepidea moztuko da Beran eta martxoaren 13an Huarten.

- Garapen Batzordea. Ricardo Arangoak ematen du informazioa.

Bilera egin zen 1. sektorearen bultzada programaren inguruan, martxoaren 5ean bilera eginen da, 16etan Apeztegi berrin, plana aurkezteko eta ekoizle guztiei gonbidapena bidali zaie udaletik. Plan honen helburua 1. sektoreari bultzada ematea da, eta

jasangarria eta gertuagoa izatea. Beste udalekin elkarlanean arituko da teknikaria eta sarte bat sortu ekoizleekin.

- Ogasun Batzordea. Xabier Azpirozek ematen du informazioa.

Urtero kontzejukin egiten diren kontuak azertu dira eta bilera deituko kontzejuei aurkezteko.

- Gizarte Politika Batzordea. M^a Mar Ansorenak ematen du informazioa.

Martxoaren 8aren inguruan erakusketa bat antolatu da Apeztegiberrin eta ahalduzko tailerra nerabeentzat Aizarotzen, martxoaren 7an. Martxoaren 6an emakumeen afaria egingen da Berueteko ostatua eta martxoaren 8an, bailareko emakumeak Latasan elkartuko dira Irurtzunera joateko eguadiako 12etan egingen den manifestaldira.

12.- Informazio orokorra.

Ez dago.

13.-Errege-galderak

Ez dira egin.

Eta gai gehiago aztertzeke ez dagoenez arratsaldeko 20:20 ak direnean bilera amaitutzat eman da eta idazkariak horrela izan dela ziurtatzen du.